

## **Gartzela eta propinak**

*Euskaldunon Egunkaria*, 1995-06-20: 2.

Presoak, okerrenak ere, pertsonak dira. Giza eskubideak lege diren gobernamentuetan zigorrak lege mugatuak behar dute izan. Ez nahi erarako propinarik! Baina ematen dira, halere; presoak, herria eta familia bizi duen lekutik urrunen bidaltzen dituzte, kondena ahal den desanparatu bakarren eta gogorren suerta dadin. Honez gain, propina hauek legezko izan daitezten ahalegintzen dira aproposak diren legeak egokitzen, baina gorrotoa ezin da estali. Gauza bera gertatzen da GALen affaian: krimena jauki duena lege jarraikatzerara mugatu beharrean. Estatua berak bere esku hartzen duela bengantza. Tentazio handia da agintzen dagoenarentzat, baina ezin da esan justizian ari danik, zeren eta legeak badu, legeriaz gain, berean duen izpiritu zorrotza, eta hau gabe esentzia guztia galtzen du. Hauxe bera pasa berria da Jabi Gorostiza presoarekin: Ciudad Realgo puntako espetxean zegoela eztarriko minbizia aurkitu zioten, eta gaixoaren larritasuna kontuan edukirik espetxetik ateratzeko eskabidea egin zen Espetxeetako Arautegiak 60. Artikuluak dionez, honetarako paper bat sinatu arazi zioten ETArekin zerikusi berririk ez zuela izango eta abar, denbora joan zen. Orain, Kartzelatik Kanpoko Medikuen Elkartetik jakin denez, "gaixotasunari behar bezalako tratamendua eman balitzaio, orain ez litzake hil zorian egongo". Ba, hila dago.